



1. AKTA

OHIKO UDALBATZARRA, 2007eko urtarrilaren 30ean izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta San Pedroko Udal Aretoan.

NOIZ: Bi mila eta zazpiko urtarrilaren hogeita hamarrean. Bilkura-buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela, eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, honako zinegotzi hauek etorri dira:

PSE-EEtik

Lore Suárez Linazasoro a.
José Basterra Marfil eta
Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.
José Manuel Anso Martínez j. eta
Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta
Mariví Roteta Mujika a.

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. (PP).

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez dute ezin etorria justifikatu Juan Ramón González Medrano atxiki gabeko zinegotziak eta José Luis Martínez de Espronceda Luiña PP-ko zinegotziak. Ezin etorria justifikatu dute Lucia Querido Noceti PSE-EEko zinegotziak (osasun arazoengatik) eta Aitor Larrañaga Burguera EAko zinegotziak (aita izan berri delako). Kontu-hartzaile lanetan Iruñe Soto Cotorro andrea ere bertan izan da.

Bilkura-buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeke, eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren, gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio:

1.- Aurreko batzarraldietako aktak irakurri eta onartzea: 11. eta 12.a, 06-9-26 eta 06-10-5eko datakoak, hurrenez hurren.

Udalbatzak goiburuan aipatzen diren aktak aztertu ditu, eta bertaratutako zinegotzien gehiengoak onartu eta dagokien akta-liburura transkribatzeko erabakia hartu du.

- Bozketaren emaitza ondokoa da: SEI (6) aldeko boto, PSE-EE (4) eta EB (2) taldeetako zinegotzientzat; eta ZAZPI (7) abstentzio, EAJ (4), EA (2) eta PP (1) taldeetako zinegotzientzat.

2.- Xedapen Ofizialak eta Alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Bertaratutakoen esku jarri da alkate eta zinegotzi ordezkarien ebazpenen liburua, horren berri izan dezaten.

Udal idazkariak jakinarazi du maiatzean izango diren udal hauteskundeak prestatzeko izapideekin hasiak direla.

Ondoren, udal idazkariak ondoko ebazpen eta egintza judizialen berri eman du:

- Epaiak, Administrazioarekiko auzien Donostiako 2. Epaitegian emandakoa, 620/05 Ohiko Prozedurari buruz. Fco. Javier Ganzo Castrok udala salatu zuen, 2005eko azaroaren 9an emandako ebazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztuz. Ebazpen haren bitartez errekurtsogilearen 3. auto-taxi lizentzia baliogabetu eta indarrik gabe uzten zen. Epaiak ezetsi egiten du administrazioarekiko auzi-errekurtsua eta errekurritutako akordioa zuzenbidearekin bat datorrela jo eta berretsi egiten du, kosturik ezarri gabe.
- Epaiak, Merkataritza arloko Donostiako 1. Epaitegiak emandakoa, 141/06-M Ohiko Prozedurari buruz. SGAE Egile eta Editoreen Elkarteak Pasaiako Udalari auzia jarri zion eta 16.438,33 euro ordaintzeko zigorra ezartzeko eskatu zuen; izan ere, udalak ez dizkio elkarte horri egile-eskubideak sortzen dituzten zenbait ekitaldi ordaindu, ekitaldi horiek guztiak herrietako jaietakoak dira. Epaiak onartu egiten du eskaera eta udalari 16.438,33 euro eta sortutako kostuak ordaintzeko zigorra ezartzen dio.

Udalkideei jakinarazi zaie epai horren funtsa dela udalari herriko jaien antolaketa egotzi izana, aisia eta turismoaren arloan udalak duen titularitate orokorra oinarri hartuta eta jaien antolaketa udalari egotz dakiokela frogatu gabe. Ordea, udalak jaiak sustatzen ditu, benetako antolatzaileei, hau da, jai-batzordeei, diru-laguntzak emanez. Horiek horrela, udal letratuaren iritzian nahikoa arrazoi dago apelazio-errekurtoa jartzeko, eta udalbatzarrera bertaratu diren taldeek proposamena onartu dute.

3. Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola T.E.E.O.L.ren (46.2.e artikulua araberan).

Azken saioaz geroztik alkatetzan egin diren gestioen berri eman du alkateak. Honakoak dira:

- Oarsoaldeko administrazio-kontseilua
- Zenbait taldek alkatearekin izandako bilerak eta Karmengo Amako gurasoekin, DBH zabaltzeko beharrari buruz hitz egiteko.
- Mineralen erakusketaren inaugurazioa Trintxerpeko alkateordetzan, Iberdrolaren laguntzarekin.
- Pasai San Pedron gasaren inguruan sortu den auzia. Alkateak Naturgasekin lortutako akordioaren berri eman du: San Pedro kaleko presio-neurria onartu dute eta ondoren finkaz finka azterketa egingo dute, bakoitzaren harguneak non jarri erabakitzeko. Bestalde, iragarri du hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean Naturgasi lizentzia emango zaiola, lehen aipatu dugun finkaz finkako azterketa hori egiteko baldintzarekin. Horretarako, Lizarrako ereduari jarraituko diote, udal teknikariak bertara joango dira han lortutako emaitza ikustera.
- Eudeleko lurralde-batzordea
- Badia Berriren kontseilua, akta prest dagoenean eledunei helaraziko zaie.

Gobernu-organoen kontrolari buruzko hitzartzeen atalean ondokoak eman dituzte aditzera:

- Marivi Roteta and.ak Lucía Querido zinegotziaren osasun-egoeraz egin du galdera eta alkateak eskerrak eman dizkio.
- Guillermo Sánchez-Berra jn.ak iragarri du salaketa jarri duela Juan Ramón González Medrano atxiki gabeko zinegotziaren aurka eta González Medrano jn.aren hitzak (15. aktako 3. orrian

jasotakoak) argitaratu zituzten komunikabideei zuzenketa egiteko eskatu diela. Haren iritzian Medrano jn.ak zabaldu zituen dokumentuak legez kanpo lortutakoak dira eta ekintza hori delitu izan daiteke, beharbada hari egoztekoa.

Ondoren, alkateari galdetu dio zertarako egin den udalbatzar hau, gai-zerrendan puntu bakarra badago.

Halaber, kexu da inork ez zuelako gonbidatu mineralen erakusketaren inauguraziora.

Hirigintzako zinegotzi ordezkari García Garderen jarrera gaitzetsi du, San Pedro kalean gas-instalazioa jartzeko auziari dagokionez, eta zabarkeriaz jokatu duela deritzo, bizilagunek mugiarazi dutelako udala.

- García Garde jn.ak erantzun du Guillermo Sánchez-Berrak azaldutako bertsioa partziala eta oso interesatua dela, hainbat ustetan oinarritutakoa, izan ere, ez da sailera hurbildu ere egin kontsulta egitera.

Auzi honetan 2 lizentzia daude: bata emana dago, tutoretzapeko apartamentuena, eta presio erdikoa da; eta besteak aurkako txostena du, ez duelako betetzen hirigune historikoei buruzko araudia. Naturgasekin hainbat gestio egin dira Arau Subsidiarioak bete ditzan; hala ere, bizilagunek obrak eragotzi zituzten, apartamentuetako obrak bukatu eta San Pedro kaleko gainerako zatian gasa sartzeko lanak egingo ez zirelako beldurrez; baina horrek ez du esan nahi zabarkeriarik izan denik.

- Guillermo Sánchez-Berrak, hirigintzako zinegotzi-ordezkari Jesús García Garderi zuzenduta, erantzun du Pasaiako udalak izan duen zorigaitzik handienetakoa dela hura zinegotzi izatea, sail hori kudeatzeko duen gaitasun ezagatik.

Azkenik Trintxerpeko Azokan 10 edo 12 egun daramatzen pankarta bati buruzko galdera egin du.

OGASUNA

4.- Oarsoaldea: Alkatetzaren proposamena Oarsoaldeak bi kreditu-kontu irekitzeko, bi lokal erosi ahal izateko.

Udalbatzak, bertan diren zinegotzi gehienen botoekin, atzera bota du Alkatetzaren proposamena, hau da, Oarsoaldeak bi kreditu-kontu irekitzeko, Oarsoaldeko Enpresa Zentroaren ondoan bi lokal erosi ahal izateko.

- Aktan jasota gera dadin, bozketaren emaitza honako hau da: SEI (6) aldeko boto, PSE-EE (4) eta EB (2) taldeetako zinegotzientak; eta ZAZPI (7) aurkako boto, EAJ (4), EA (2) eta PP (1) taldeetako zinegotzientak.
- Hitzartzeen atalean ondokoak esan dituzte:



- José Luis Goikoetxea jn.ak adierazi du abalak jartzearen aurka dagoela, zorpetzeko gaitasuna kontsumitzen duelako eta galdetu du akordioa berme solidarioa baimentzean datzan edo horretarako gaitzen duen.
- Udal idazkariak adierazi du udalak parte hartzen duen sozietatea izanik, Udalbatzaren akordioa behar duela abalak emateko; kasu honetan, eskatutako kredituari erantzuteko konpromisoa, kapitalean duen partaidetzari dagokion proportzioan, Oarsoaldea S.A.k ordainketei aurre egingo ez balie.
- Guillermo Sánchez-Berrak gaitzetsi egin du Oarsoaldearen kudeaketa udalek, zehazki Udalbatzak, ez kontrolatzea, eta soilik alkateak kontrolatzea, horrek Oarsoaldearen kudeaketa abalatzea galarazten ez dion arren, emaitzengatik; hala ere, haren iritziz ordezkari zabalagoa behar luke, eta ez da onargarria udalak eragiketa hori abalatzea.
- Alkate andreak argitu du bankuaren eskaria dela eta ez Oarsoaldearen edo bere administrazio-kontseiluaren burukeria.

Eta, beste gairik ezean, 10,30an batzarra amaiturik, nik, batzordeko behin-behineko idazkariak, alkatearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.